

Xedea eta fedea

 UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Sargoriari bizirauten saiatzera egin dugu kostalderantz, husten zihoan hondartzan bainua hartu, afaldu eta Santa Klara eguneko kontzertuak ikustera. Bidean topatu ditugunen argibideei segita, txankletak orpopean eta mugikorreko linternak eskuan abiatu gara errepide bazterreko eskaileretan gora. Eskuineko aldetik datorren olatuen soinua bat eginuz joan da muinoaren tontorretik entzuten den musikarekin. Hasita dago kontzertua, iragarritako orduak jo aurretik.

Bi eraikin eta ermita nano batek osatzen dute Ondarroako Santa Klara; noizbait fede kristauaren izenean erakitakoak bestelako sinesmen batzuek biziberritzen dituzte orain. Zuhazpean, ermitaren aurrean dago eszenatokia, euskarri kuriosoez lagunduta: moztutako enbor zatiek eusten dituzte baffleak, eta etxeko altzari zaharrez egindako egitura batek sintetizadorea.

Herriko Hil taldearen ondotik, Bilboaldetik etorritako Uger taldea ari da oholtzan, 50 pertsona inguru begira ditzutela. Rock alternatiboa abizenarekin irakurri ahal izan ditut kartelean, punk rocka ere jarri izan diote sarri. Abizena jartzea zail den talde horietako bat izan daiteke, askotariko influentzia musikaletan egiten baitute igeri. Niretzat, barruko zarata isilarazteko, ukendu lez erabiltzen ditudan musika taldeen zerrrendako bat da Uger –abizen luzeegia eta neureegia da, badakit–. Besteak beste, lau lan luze osatu dituzte zortzi urteko ibilbidean, eta eurendu dituzte Fugazi, New Order, Marmol, Joy Division, Nirvana, Sonic Youth edota Anari.

Leku berri bezain berezi batean kokatzeko lanak eta aspaldi ikusi gabeko lagun agurrak tarteko, kosta zait, hasieran, arreta kontzertuan ezartzea. Baina lehen aldiz entzun nuenean egin bezala, harrapatuta geratu naiz *Denbora* abestiaren instrumentalean. *Izana izenpean*, *Bost* eta *Fedea eta xedea* kantekin jo dute goia; eta lur hartu, berriz, *Rosales*-ekin. Zuzeneko indartsua osatu dute lan zaha-



rrak, berrienak, tartekoak eta bertsioren bat nahastuta.

“Ugerrak jaten duen zerraldo erraldoia da Bilbo”, idatzi zuen Sonia Gonzálezek. Zerraldo erraldoiaren barrunbeetatik datorren boskoteak, kontzertua amaitzeko, bertan bizirauteko haien formula konpartitu digu. Ostean datozen elektronika doinuei bide emanez, lokalean findu duten esperimendu bat

UGER

NOIZ: abuztuaren 11n

NON: Santa Klara ermitan
(Ondarroa)

oholtzaratu dute, “gustuko duguna egingo dugu, ugertuko baikara” abestu eta Santa Klara dantzan jarrita.

Ugertuko gara, bai. Baina, bitartean, gustuko duguna egingo dugu; hiri herdoilduak zein itsasertzeko muinoak musikaz bete eta udako gau epeletan txankletak basatuta elkar topatu, denbora eta ezlekuak geure egiteko. Hortan ere badatza gure xedea eta fedea. ●